



Euskal Herriko Kirol Markak

Webgune berria : kirolerrekorrak.eus

Euskal Herria Kirola elkartearen xedea da Euskal Herriko zazpi lurralde historikoetan kirol eremua finkatzeko urratsak ematea, modu praktiko batean Euskal Herria kirol esparru gisa osatzen joatea, atalez atal, diziplinaz diziplina.

Ildo horretan, Euskal Herriko kirol errekorrak eta markak erregistratu eta landuko dituen webgune berria jarri dugu sarean: kirolerrekorrak.eus

Errekorrak kirolariak baldintza berdinetan eta modu homologatuan egindako markarik hoberenak dira, beti ere, lurralde jakin baten esparrua hartuta. Hartara, webgune honetan Euskal Herrian egindako marka gorenak erregistratu eta finkatuko ditugu, geure kirol esparrua ere markatuz.

Hasteko, igeriketan eta atletismoko modalitate nagusien datuak jasotzen hasi gara, azken batean horiek direlako nazioarteko erregistroetan jaso ohi direnak, baina Euskal Herrian egiten diren gainerako kirolak ere lantzeko asmoa daukagu, geure kirolarien markek, erronkek eta errekorrek ematen dizkiguten aukerak baliatuz.

Erregistroak egiteko orduan, Euskal Herriak kirol instituzio publiko orokorrik ez duenez, Autonomia Erkidegoko eta Foru Erkidegoko federazioetan homologatuak dauden errekorrak gurutzatuko ditugu eta Iparraldeko klubek ematen dizkiguten datuekin alderatu ondoren finkatuko ditugu Euskal Herriko errekorrak.

Asier Martinez nafarrak du gaurkoz, Euskal Herriko errekorra atletismoan 110 m. hesitan 13.32 denborarekin. Igeriketan, Angeluko **Theo Corteaux**-ek du errekorra 100 metro bular estiloan, 17 urte azpikoen artean, 1.03.49 markarekin. Eta, igeriketan ere, **Mikel Bildosola** igerilari getxoztarrak du errekorra absolutuetan, 50 m. librean, 22.13 denborarekin.

Kirol errekorrak kirol jardueraren erreferentzia nagusiak dira, garaipenaren irudia eta giza ahalmenaren sinbolo. Ospatzeko aukera ere izango dugu, izan dezan Euskal Herriak kirolaren baitan bere buruaren irudia nabarmen ditugun kirolarien marketan.

Andoain, 2022ko martxoaren 26a

